

Portilla - Ocio



KOKAPENA

Garrantzi historiko handiko irteera izango da hau, kilometro gutxitan (hamar baino gutxiago) bi gordelekuko gaztelu ikusteko aukera izango dugu. Defentsarako zein garrantzizua zen zonalde hau ikustaratzen digu. Portilla eta Ocioko gazteluak dira hauek.

Lautadaren hego mendebaldean kokatuta dago irteera hau, Burgoseko mugaren ondoan oso gertu. Portillako mendatearen goiko partetik Erdi aroan defentsarako eta bigilatzeko eraiki zen línea natural bat imagina dezakegu oso erraz. Hemendik gaur egungo Miranda de Ebro eta Urizaharreko iparraldeko zatia erraz ikus dezakegu.

DESKRIBAPENA

Portilla herritik hego mendebalde norabidea hartzen duen pista bat jarraituko dugu, Inglares ibaira hain zuzen. Peña Redonda harroiazen norabidea jarraituko dugu Hoyo del Monte harrioa hartu arte, hau jarraituz ibilbidearen amaierarte joko dugu.

Portilla mendatea zeharkatzea izango da gure helburua Ocio norabidean, gure bidean Valdeportilla zeharkatuko dugu. Chulato eta Peña Redonda mendiak inguratuko ditugu.

Gr 1 ibilbide historikoa jarraituko dugu egun osoan zehar.

IBILBIDEA

KM 0 Portilla herrian Berganzo bidean doan pista bat hartuko dugu hego ekialde norabidean, Barranco del Hoyo bidea deritzona.

KM 3 Irteeraren punturik altuena, gaztelura doan bidea desbideratzen den puntua. Hemendik aurrera behera doan bidea jarraituko dugu.

KM 6 Valdeportillatik gertu igarko gara, Hemendik aurrera landutako zelaiak ikusiko ditugu, Portilla mendiez gordetak.

KM 9,7 Ocio herrira helduko gara. Bertan, arropa aldatzeko eta erlajatzeko tartea izango dugu, baita, Estadiora eramango gaituen autobusa itxuiten ere.

